

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Osasun eta Hezkuntza Departamentua proiektu batean elkarlanean ari dira irakasleei berpizte kardiopulmonarreko teknikak irakasteko

Ehun bat irakasle jardute horietan prestakuntza jasotzen ari dira, gero ikasleei transmititzeko helburuarekin

Viernes, 03 de febrero de 2012

Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ehun bat irakasle berpizte kardiopulmonarreko teknikei buruzko mintegi batean parte hartzen hasi dira Iruñean, Tuteran eta Lizarran; helburua, lan egiten duten ikasleak eta ikastetxeko komunitatea jardunbide-mota horietan prestatzea da, eta eraginkorrak direla egiaztatu direnak ospitaletik kanpo bihotzeko ezbeharren bat pairatzen duten pertsonen bizirautea handitzeko.

Proiektua haur aurkeztu dute, Osasuneko zuzendari nagusi Cristina Ibarrolak, Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusi Iñigo Huartek eta "El ABC que salva vidas" elkarte sustatzaileko lehendakariorde Diego Reyerok.

Iaz lehen esperientzia egin zen Agoitzen, eta bertan Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek parte hartu zuten eta DBHko 4. mailakoek.

Proiektu hori "El ABC que salva vidas" elkarteak sustatu du era altruistan Osasun Departamentuaren laguntzarekin eta Hezkuntza Departamentuko Hobekuntza Planak eta Berrikuntza atalaren laguntzarekin.

Irakasleei laguntzeko zentroetan egindako mintegiak bi zati ditu. Lehenengoan, irakasleek berpizte kardiopulmonarreko ikastaro bat jasotzen dute eta bigarrenengan, ikasgeletako eta ikastetxeko komunitateko prestakuntza-alderdiei erreparatzen zaie. Bi saio horien ostean, irakasleek panpinak eta material didaktikoak dituzte jarduera ikasgeletan egiteko. Irakasleek uneoro osasun-langileen eta elkartearen webguneko materialen laguntza dute, eta laguntza-dokumentazioa euskaraz, ingelesez eta gaztelaniaz dute.

Elkarteko sortzaileek antolatutako ikastaroak osasuneko langileek zuzendu dituzte: Iruñean, Nafarroako Ospitale Guneko Larrialdietako mediku Bernabé Fernándezek; Lizarran, Nafarroako Ospitale Guneko zainketa intentsiboetako unitateko mediku José Roldánek eta Tuteran, ospitale kanpoko larrialdi-zerbitzuetako mediku Caro Elcuaz-ek.

Ikastaro bakoitzean zuzendari batek parte hartu du gutxienez 5 irakaslerekin, irakasleen ratio hobea izateko aukera emanik ikasle bakoitzeko. Azken saioan, irakasleek jardueretako beren esperientziak ikastetxeetan partekatuko dituzte. Azken helburua ikastetxeko

komunitatean jarduerari jarraipena ematea da.

Ikastaroen edukia

Ikastaroen asmoa honako kontzeptu hauek irakastea da: biziraupen-katea; berpizte kardiopulmonarra eta eztarrian gelditutako zerbaiten aurrean nola jokatu, segurtasuneko alboko posizioa eta trafiko-istripu kasuetan jarduteko oinarrizko ezagutzak.

Zenbait azterketak erakusten dute berpizte kardiopulmonarra (BBB) 11-12 urterekin irakastea (Legen Hezkuntzako 6. maila) etapa egokia dela arreta bereganatu eta bizitzak salba ditzakeen teknika bat ikasteko. Elkarreak jarduera hori gutxienez urtero egitea adin horretan gomendatzen du, nahiz eta irakasleek panpinak dituztela eman dezaketen jarduera hori ikastetxeko komunitate guztientzat."

"EI ABC que salva vidas" elkarrea

Ekimenaren elkarre sustatzailea, Nafarroako Osasun Zerbitzuetako (NOZ) larrialdi-sisteman lan egiten duten osasun-langile batzuen laguntza altruistaren emaitza da; haiek berpizte kardiopulmonarraren ezagutza zabaltzeko beharra erkidegoan betetzea nahi zuten.

Helburu nagusia "Bihotzeko komunitate seguruak" izeneko sortzea da, berpizte kardiopulmonarreko abildadeak herritarren artean orokortuta dagoen ezagutza izan dadin bat-bateko heriotza baten biktimari emandako artapena ondo eta denbora asko pasa gabe egin dadin.

Elkarreak panpinak eta materiala ditu proiektuari ekiteko Agoitzeko ongile baten babesari eta NOZetako administrazioari esker. Beste laguntza altruista batzuk ere jaso dituzte ilustrazioak egiteko (Juan Iriarte), diseinurako (Adrian Larripa), webgunea sortzeko (Daniel Poza) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Konputazio Departamentuarena.

Elkarrearen sortzaileen artean daude: Clint Jean Louis Fernández, Diego Reyero Diez, Carlos Beaumont Caminos, Susana Miranda Alcoz, Ana Fernández Urdaci eta María del Carmen Iriarte, guztiak ere aparteko eta ospitaleko larrialdi-eremuan lan egiten duten osasun-langileak. Ikastetxeetan zenbait ekimen egin ostean, sortzaileek Foru Erkidego guztira iristeko erronka jartzen zuten.

Anbizio handiko proiektu honek erakunde askoren laguntza behar duela jabetuta, elkarreak tartean sartu nahi ditu: ikasleak, irakasleak, gurasoen elkarreak, hainbat kolekibo, erakunde publikoak, bat-bateko heriotzaren arriskua duten pazienteen familiarrak, era mailakatuan, gero eta herritar gehiagok teknika horiek ikas ditzan; oso teknika sinpleak dira, baina garaiz aplikatuta bizitza bat salba dezake. Informazio gehiago eskura daiteke www.elabcquesalvavidas.org webgunean.

Komunitateko proiektua Agoitzen

2011ko maiatzean era honetako proiektu bat egin zen, Izaga Mankomunitatearen babesarekin. Zehazki, BBB prestakuntza eman zitzaion San Miguel ikastetxe publikoko irakasleei eta Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta DBHko 4. mailako ikasleei.

Ikastaroa egin ostean, Lehen Hezkuntzako 6. mailako 38 ikaslek panpina bat eta DVD bat eraman zituzten beren etxetara bi astetarako. Horren emaitza: 222 familiarrek eta 54 adiskidek prestakuntza era autodidaktan jaso zuten. Hamabi haurrek panpinak Foru Erkidegoz kanpoko zonalde batera eraman zituzten, 215k prestakuntza osasuneko oinarrizko zonaldearen barnera eraman zuten eta beste 75ek zonaldekanpo, baina Nafarroa barnean.

2011ko ekainean, ate irekien jardunaldi bat egin zen osasuneko oinarrizko zonaldeko herritarrentzat. Landa inguruko larrialdi-zerbitzuak, lehen mailako arretako taldeak, Izaga Mankomunitateak eta Agoitzeko San Miguel ikastetxeak antolatu zuten, 30 osasun-boluntarioekin batera; azken horiek herritarrei oinarrizko bizi-euskarria erakutsi zieten.

Komunitateko proiektuak beste talde batzuentzako prestakuntzarekin jarraitzen du: erretiratutakoen kluba, nekazariak... Azken urtean ere jarduerak egin dira San Maria la Real (Maristas) eta Jesusen Bihotzeko ikasleekin.

Bat-bateko heriotza eta komunitateko programen beharra

Espanian bihotzeko bat-bateko heriotzaren (MSC) eragina industrializatutako herrialdeen artean baxuenetakoa da. Hala ere, heriotzen % 12 orokorrean bat-batean gertatzen dira. Kopuru horretatik % 88 bihotzarekin zerikusia dutenak dira. Kardiopatia iskemikoa duten pazienteengan, hiltzeko arrazoi ohikoena da (% 50). Bihotzeko bat-bateko heriotza gehienak ospitaletik at gertatzen dira: % 75 bizilekuan eta lekuko ohikoena familiako bat da (sarritan haur bat).

Gaur egun geldialdi kardiorespiratorio baten aurrean ospitaletik kanpo bizirik ateratzeko probabilitateak oso txikiak dira. MSCren eragina murrizteko estrategia eraginkorrena eta biziraupena handitzeko, arriskuen azpitaldeak identifikatzea da (miokardioko infartu baten ondoren bihotz-gelditzearen aurrekariak dituzten pazienteak, bihotz-gutxiegitasuna duten pazienteak...) eta baita ebakuntza terapeutiko eraginkorrak ere.

Larrialdi-zerbitzuen erantzun azkar batean eta herritarrei berpizte kardiopulmonarreko irakaskuntzan oinarritutako komunitateko programek, paziente horien biziraupena handitzeko eraginkorrak izan daitezkeela erakutsi dute.